

txintxarri

KIROLA

**Donostia Arraun
Lagunak-ek bi bandera
gehitu ditu ligako
poltsara, Bizkaian / 10**



Ongi etorri, lagunak!

**Bost haur saharar gure herrian igarotzen ari
dira udara, Oporrak Bakean programari esker / 4**

TXINTXARRI

GIZARTEA

**Sanpedroen
"balorazio oso
positiboa" egin
dute udal
ordezkariek**

Udaltzainen esku hartzeetatik bakar bat ere ez da izan genero indarkeriagatik edota sexu askatasunaren aurkako delituengatik / 2

KULTURA

**Kukai taldeak
ireki du aire zabaleko
emanaldien zikloa
'Kale hizketak'
ikuskizunarekin / 5**

KIROLA

**Herriko futbol taldeak
Donosti Cup lehiaketa
jokatzen ari dira;
Michelin zelaia da
egoitzetako bat / 11**

Albia
BEILATOKIA ERRAUSKETA-LABEA REKALDE BERRI

Beste agur bat posible da
Utzi zeure emozioak sentitzen.
Gu arduratuko gara gainerako guztiaz.

Hileta zerbitzu berritzaileak
Zeremonia pertsonalizatuak
Etengabeko arreta emozionala

900 24 24 20
24 orduko arreta
albia.eus



Antolatutako ekimenetan herritar askok parte hartu zutela azpimarratu dute udal ordezkariak. Irudian, haurren txupinazoa, ekainaren 26koa. TXINTXARRI

Txintxarri

Berriki ospatu ditugun sanpedroen "balorazio oso positiboa" egin dute Agustin Valdivia alkateak eta Jaiak departamentuko zinegotzi Txus Alonsok. "Giroa ederra izan da eta jende mordo batek parte hartu du ekainaren 26tik 30era antolatu genituen ekimenetan", nabarmendu dute. Aurtengo ospakizunak amaituta eta egun horietako lanaren eraginez erabiltako indarrak berrituta, datorren urtekoak lantzen hasi direla iragarri dute biak ala biak. Norabide horretan, aurreratu dute bost egunekoak izango direla; zehazki, ekainaren 25etik 29ra artekoak. Zaindariaren eguna izango da azkena, beraz.

Zeregin horiekin jarraitu aurretik igaro berri diren festak errepasatu dituzte Valdiviak eta Alonsok. "Sanpedroak posible egin dituzten guztiei egindako lana eskertu nahi diet: udal langileak, Udaltzaingoa, Ertzaintza, Gurutze Gorria, eragileak, erakundeak, boluntarioak, garbiketa zerbitzuak, enpresa laguntzaileak, egitarauko ekimenak aurrera eramane dituzten norbanakoak eta taldeak... Guztiok elkarlanean aritzen garenean gauza ederrak egin ditzakegu", adierazi du alkateak. Halaber, herritarren "portaera ona" balioan jarri du eta "istilu larririk" egon ez dela nabarmendu du. Edonola ere, festetan zehar kaleak oraindik

GIZARTEA

Parte hartze handiko eta istilu larririk gabeko San Pedro Jaiak izan dira

Aurtengoak amaituta jada datorren urteko festak prestatzen hasi direla iragarri dute udal ordezkariak. Ospakizun egunak bost izango dira berriz ere, zehazki, ekainaren 25etik 29ra artekoak

ere "zikinegiak" egon direla irudituz zaio: "Aurtengo gauza okerre hori izan da".

Sanpedro "lasaiak"

Segurtasunaren atala izan dute hizpide, besteak beste. Valdiviak eta Alonsok bereziki azpimarratu dute sexu erasorik ez dela gertatu eta eraso matxisten aurkako udal protokoloa ez dutela aktibatu behar izan. Ildo horretatik, jakinarazi dute udaltzainek 132 esku hartze egin zituztela festek iraun bitartean: trafikotzariengatik bi; salaketengatik

hamahiru; ibilgailuen zirkulazioagatik hamabost; herritarren segurtasunarekin lotutako kontuengatik 36; eta "bestelako jarduerengatik", 66. "Ez zuten inolako esku hartzerik erregistratu genero indarkeriagatik edota sexu askatasunaren aurkako delituengatik".

Arestian aipatutako protokoloari lotuta, udal ordezkariak balioan jarri dute neurri sorta horren "funtzionamentu ona". Azaldu dute goizero koordinatu zirela Udaltzaingoa buruzagitzaren udaleko Berdintasun

departamentua: "Gauko txandetan gutxienez polizia agente bat egotea bermatu genuen eta ez zen beharrezkoa izan balizko biktimentzako egokitutako espazio segurua erabiltzea".

Bestalde, "jaietan ohikoak diren gorabeherak" artatu bazituzten ere, hala nola mozkorraldiak, eztabaidak, borroka txikiak edo erorikoak, inor ez zuten ospitalera eramane behar izan.

Alonsok azaldu duenez, "ez betetze puntual batzuk" aztertzen ari dira, "ostalaritza establezimendu batzuekin eta Sorgin Jaiak-ek jarritako txosnen ordutegiarekin lotutakoak". Dokumentazioa eta txosten teknikoak biltzen ari dira, "zigor espedienteak irekitzea bidezkoa den ala ez zehazteko".

Kontzertuetan, "jendetza"

Ekainaren 26tik 30era arteko ekimen erakargarrienak kontzertuak izan zirela uste du Alonsok. "Bereziki harritu ninduen Hazasek bildu zuen jendetza Okendo plazan; banekien aurtengoa dela bere urtea baina halere txundituta geratu nintzen, ez nuen horrelako harrera espero". Musikari herritar

Ekainaren 28ko euritea tarteko, zenbait jarduera bertan behera utzi behar izan zituzten

hori ez ezik aipatu ditu baita ere JAGOBA, Süne, Chambao, La Orquesta Mondragon eta Mucedades. Bestalde, haurrei begira antolatutako jarduerak ere "arrakastatsuak" izan zirela adierazi du; batez ere, Tximistarreta parkean aurrera eramane zuten Circus Feria. Hurbileko suen erakustaldiari buruz hitz eginda amaitu du burutu zituzten ekimenen errepasoa: "Asmatu dugu ikuskizuna Sasoeta LH ikastetxeko patiora eramatearekin. Nire iritziz, toki onena Andatza plaza da baina hezkuntza zentroa osoa da zaindu beharreko segurtasun baldintzei dagokienaz, batez ere, hesituekin zerikusia duten kontuengatik". Horri lotuta, zehaztu du Gurutze Gorriko boluntarioek bi erredura txiki besterik ez zituztela artatu behar izan; kartutxo hondarrek eragin zituzten biak ala biak.

Tamalez, eguraldiagatik ezin izan zuten egitarau osoa bete. Bereziki zaila izan zen ekainaren 28a, arratsaldeko zazpietatik aurrera sekulako euri jasa bota zuelako, goizaldeko ordu txikietara arte geratu ez zena. Horren ondorioz, bertan behera utzi behar izan zituzten berrikuntzetako bat zen Holi Festa eta El Gato Con Jotas taldeak Jaizkibel plazan eman behar zuen kontzertua. "Baldintzak horiek izanik, ezin genuen musikarien segurtasuna bermatu". Beste zenbait jarduera, herri kirolen erakustaldia esate baterako, ez zituzten bertan behera utzi baina tokiz aldatu behar izan zituzten.

Azalduetako horri guztiari buruzko informazio gehiago aztertzen ari direla eta orain arte jasotako "iradokizunak nahiz kritika eraikitzaileak" kontuan izango dituztela azpimarratu du Alonsok, bukatzeko. "Urte urte are sanpedro hobeak prestatzea da gure helburua eta bide horretan jarraituko dugu lanean: guztion artean gozatzeko, elkarrekin bizitzeko eta partekatze-ko festak antolatzen jarraitu nahi dugu".

132

UDALTZAINEN ESKU HARTZEAK

Sexu askatasunaren aurkako delituengatik edo genero indarkeriagatik, bat bera ere ez



Pintamil dendan batu dira merkariak eta udal ordezkaria. TXINTXARRI

EKONOMIA

Hiru ordutan xahutu beharreko 1.000 euro irabaz ditzake herritarren batek

'Eskuratu 1.000 euro' kanpaina abiatuko du Aterpeak hilaren 6tik 19ra

Txintxarri

Aterpea merkatarien elkarteko kanpaina batzuk "udako klasiko" bihurtu dira dagoeneko Lasarte-Orian. Horietako bat da *Eskuratu 1.000 euro* egitasmoa. Horren berri eman du egunotan aipatu merkatarien elkarteko lehendakari Mabel Pedreirak. Agerraldi horretan izan da Sozioekonomia zinegotzi Nuria Fernandez Castrillo ere.

Ekimenak urtez urte herritarren interesa pizten duela nabarmendu du Pedreirak, eta esan, uztailearen 6tik 19ra bitartean, erosketak kanpainara atxikitako edozein establezimendutan egiten dituzten bezeroek zozketan parte hartzeko txartel bat jasoko dutela. Epealdi hori igarota, irabazleak 1.000 euroko saria jasoko du erosketak txarteletan, eta arratsalde bakar izango du horiek erabilita erosketak egiteko. Uztailearen 23a izango da horretarako eguna, 17:00etatik 20:00etara.

Hiru ordu horietan, ibilgailu bat izango du eskura, eta Aterpeako pertsona batek lagunduta joango da bertan irabazlea. Gainera, erosketak ahalik eta negozio gehienetan egiteko helburuarekin, saltoki bakoitzean gehienez hamar txartel erabili ahal izango ditu sarituak. Zerbitzua momentuan gozatu ezin den establezimenduetan, hala nola ile apaindegietan, estetika zentroetan, jatetxeetan edo bidaia agen-

tzietan, bonuak edo baleak jasoko ditu trukean.

Aurkezpenean, Mabel Pedreira Aterpeako presidentek azpimarratu du elkarteak antolatzen duen kanpainarik "gozoena" dela, baita "bezeroek gehien espero dutenetako bat".

Merkatarien elkarteak udalerriko merkataritza jarduera dinamizatzeko egiten duen lana jarri du balioan Sozioekonomia zinegotzi Nuria Fernandez Castrillok, eta nabarmendu, horrelako ekimenek laguntzen dutela "bezeroak leialtzen eta Lasarte-Oriaren identitatearen eta eguneroko bizitzaren parte den sektore bat indartzeko". Era berean, herritarrak animatu ditu erosketak tokiko establezimenduetan egitera.

Parte hartzaileak

Honako komertzioek parte hartuko dute aurtengo aipatu kanpainan: Aritza mertzeria; Arkupe taberna; Bideo Lagunak; Aldaz Hertz Klinika; Nogues Moda; Arregui elektrizitate; Sukoa burdindegia; Berme aholkularitza; Olmi mertzeria; Urruzola

mertzeria; Lizarri optika; Orbe la ekodenda; Santana informatika; Ventanas Alcar; Iturbe zapata denda; Noelia Calero osteopatia; Buenetxea taberna-kafeategia; Araeta sagardotegia, Avenida taberna; Multipticas Lasarte; Josema burdindegia; Berasategi kafeak; Ana gizonen ileapaindegia; Milla finka administratzailea; Naturhouse; Orue botika; Marbell ileapaindegia; Hitz-kiribil logopedia; Oihana estetika; Marian Olaizola ileapaindegia; Halcon bidaiak; Amaia Olondris podologia; Bea ileapaindegia; Deco 75 textil hogar; Adats orraztegia; Irigoyen optika; Mabel moda; Bizker errotuluak; Kima masaje zentrua; Leder oinetakoak; Dulce Tentacion: Imagine jantzi denda; North Team nutrizioa; Bardaji administrazioak; Haune interiorismoa; Zubieta motor; Splendor ileapaindegia eta estetika; Fernandez ehunak; Herriko Etxea jatetxea; Eli Lasa farmazia; Elbume altzariak; Arima gastrotaberna; Lilura liburu denda; Aralar fisioterapia; Patricio taberna; Amali jolas denda; Etxezarreta harategia; martinez multimedia informatika; Ogi Berri (Pablo Mutiozabal kalekoa); Sagastume arraindegia; Pintamil pinturak; Oria Txiki taberna; Lasarte taberna; Usoak taberna; Aitonak okindegia; Andatza taberna; Monkey park; Lagunak taberna; eta Aizpurua eraikuntzak.

Irabazleak hilaren 23an xahutu beharko ditu 1.000 euroak, 17:00etatik 20:00etara



Multipticasen aurkeztu dute aurtengo diru laguntza deialdia. TXINTXARRI

HEZKUNTZA

Eskola materiala erosteko dirulaguntza eskatzeko aukera

Ikasturte berriari begira jarrita, eskola materiala erosteko laguntzen berri eman dute udal ordezkariak, Multipticas-en

Txintxarri

Eskatzaile bakoitzak jaso dezaketekoen ekarpena urtean ingratzen duten diruaren arabera izango da. Gauzak horrela, 25.000 euro edo gutxiago jasotzen duenak, 110 euroko laguntza izango du. 25.001 eta 33.000 euro artean ingratzen duenak, berriz, 90 euroko laguntza izango du; eta 33.001 eta 40.000 euro bitartean dabilenak, aldiz, 50 eurokoa. Dirulaguntza horiek, herriko komertzioetan gastatu beharko dituztela azpimarratu dute udal ordezkariak.

Lehen edo Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako erdi mailako zikloak egiten ari diren ikasleei zuzenduta dago dirulaguntza lerroa, eta eskatzaileak Lasarte-Orian erroldatuta egon behar du gutxienez 2026ko urtarrilaren 1etik (etenik gabe), nahiz eta ez den derrigorrezko herriko ikastetxeetako ikasle izatea.

Valdiviak eta Iglesiasek ohar-tarazi dute laguntzak eskatzeko erosketak aurkeztu behar-

ko dituztela eskatzaileek; hori horrela, uztailearen 1etik irailaren 30era artean egindakoenak gordetzeko deia egin dute. Eskerak egiteko bi modu izango dituzte interesdunek. Alde batetik, eskaera orria udalean bertan entregatuta, eta, betetik, berriz, erregistro elektronikoa bidez. Hala, argitu dute zein den dirulaguntzak barne hartzen duen erosi beharreko materiala: idazmahaiko materiala (arkatzak, boligrafoak, ezabagailuak, erregelak, koadernoak, eta abar); material ez suntsikorrak (karpetak, sailkagailuak, artxibagailuak, estutxeak, kalkulagailuak, eskolarako bizkar zorroa, etab.); eskolara joateko beharrezkoak diren jantziak (uniformea, betaurreko eta lentillak, heziketa fisikoa egiteko arropa eta oinetakoak); eskulaguntza elementuak (argizariak, pintatzeko olioak, pinturak eta pintzelak); eta, teknologia berriak, ekipo informatikoak, hardware eta software mota guztiak.

ziokoak eta bereizmen handikoak izan beharko dute. Udal Erregistroaren bitartez edo erakundearen webgunea erabilita parte har daiteke.

"Argazkigintzaren esparruko tokiko profesionalak osatutako epaimahaiak" hamabi argazki onenak aukeratuko ditu gero, eta horietako bakoitzaren egileak 100 euroko erosketak bonua jasoko du herriko tokiko dendetan erabiltzeko. Horrez gain, portadarako hautatzen duten irudiaren egileari beste 50 euroko erosketak bonu bat emango diote.

GIZARTEA

2027ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa martxan

Lasarte-Oria zure objektiboan ekimenaren bidez osatu nahi du udalak 2027ko egutegia eta 16 urtetik gorako herritarrak egitasmoan parte hartzera animatu ditu. Lehiakide bakoitzak "originalak eta aurretik argitaratu gabek" izan diren hiruna argazki aurkez ditzake urriaren 23a baino lehen. Gainera, formatu horizontalekoak, 4:3 itxura erla-

GIZARTEA

Harrera goxo eta polita jaso dute udara igarotzera etorri diren haur sahararrek

Abuztu amaierara arte gurean izango dira Salemtu, Bahia, Abdi, Larabas eta Hassana gaztetxoak, Oporrak Bakean egitasmoan parte hartzen duten eragile eta familiei esker. Askatasunaren parkean ongietorri ederra egin diete bostei



Udako udal txokoetako gazteek dantza berezia egin zieten parean zituzten bost lagunei. TXINTXARRI

Iñigo Gonzalez Sarobe

Okendo enparantzaren eta Mercero plazatxoaren atzealdeko tokia Askatasunaren parkea den bezalaxe, Mendebaldeko Sahara herrialde askea izatea dute amets eta aldarrri bertakoak direnek, helduek zein haurrek. Tamalez, hori oraindik ez da horrela eta bertako gaztetxoek hona etorri behar izaten dute udara igarotzera, gerratik urrun.

Oporrak Bakean egitasmoa aurrera eramaten dutenak arduratzen dira horretaz. Gure udalerrriaren kasuan Saharare-

kin Elkartasuna Lasarte-Oria eta udala aritu dira Tolosaldea Sahararekin eragilearekin lan-kidetzan; horregatik daude gurekin Salemtu, Bahia, Abdi, Larabas eta Hassana. Aurreneko lauak utzitako udal etxebizitza batean bizi dira eta bosgarrena, berriz, Puyada-Zatarain familiarekin batera. Azken sendi horrek eman zuenez izena boluntario gisa, ume gehiago ekartze aldera ondu dute *Udabat, bihotz bat: denon artean 5 haur saharar errefuxiatu Lasarte-Oriara* proiektu pilotua. Egu-

neroko arretaz arduratzen diren monitoreak, kiroldegia zein udako udal txokoak erabiltzeko aukera eta 10.000 euroko diru ekarpena dira ezaugarriak. Egitasmoa garatzeko behar diren joan-etorriak, egonaldiak eta itzulpen- eta laguntza-zerbitzuak ordainduko dituzte horrekin.

Udan, Tinduf-eko (Aljeria) desertuan 55°tik gorako tenperatura "jasangaitzak" nozitzen dituzte, eta gurean, "oinarrizko beharrak" asetzen dituzte. Elikadura egokia jasotzen eta osasun azterketa sakonak ere egiten dizkiete.

zuen moduan, "pertsonek guztiek ahotsa, ikusgarritasuna eta benetako aukerak izango dituzten gizartearen" sinesten dute INDARen. Hori horrela, eguneroko egitasmoak genero eta intersektionalitate ikuspegietatik aurrera eramaten dituzte.

Proiektuarekiko interesa dutenek eta parte hartu nahi dutenek 655 74 40 39 telefono zenbakira deitu edo *asociacionindar.eus@gmail.com* helbide elektronikora idatzi dezakete. "Edonor izango da ongietorria", azpimarratu zuen Gomezek.

GIZARTEA

Elkar ezagututa eta saretuta indartsuagoak direlako

Txintxarri

Dozenaka emakume elkartu ziren San Pedro parrokia atzealdean dagoen aretoan hilaren 4an, Mari Mar Gomez gizarte hezitzaile eta *coach*-ak sortutako INDAR proiektua hobeto ezagutzeko eta, bide batez, elkarren arteko sarea ehuntzeko.

Inklusioa, Nahikariak (edo Beharrak), Dibertsitate, Aska-

tasuna eta eRrespetua hitzek osatzen dute INDAR elkartearen akronimoa eta ikasturte honetan zehar saio ugari burutu dituzte Emakumearen Zentroan, "ezaugarri anitzak" dituzten emakume ugariarekin. Ostiraletan elkartu dira 16:00etatik 18:00etara.

Egitasmoaren sortzaile eta lehendakari den Gomezek topaketa hasi eta berehala azaldu



Angurria eta meloia jaten. TXINTXARRI



Opariak jaso zituzten haurrek. TXINTXARRI



Elkarlana da Oporrak Bakean egitasmoa aurrera eramateko gakoa. TXINTXARRI

Finean, bestelako errealitate bat ezagutzen dute. Desertuko hareatik harago, haur horiek lehen aldiz itsasoa, igerilekua, mendia, zuhaitzak, loreak eta errekek ikusi eta sentitzeko aukera ere badutela azpimarratu dute ekimenaren arduradunek.

Esperientzia "ahaztezina"

Aipatu eragile horietako ordezkariak, udako udal txokoetako partaide eta begirale talde bat eta Fronte Polisarioa erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoan duen ordezkari Moujtar Labuehi

bertaratu ziren atzoko (hilak 9) harrera ekitaldira. Azken horrek eskerrak eman dizkie familiei, ordezkari politikoei eta eragileei: "Euskal Herrian beti eman diguzue udara zuekin ederki igarotzeko aukera; eskerrik asko zuen oporraldiak eta denbora librea gure herriko haurrek hartzea bideratzeagatik".

Agustin Valdivia alkateak ere hartu zuen hitza: "Uda hau zuenztzat esperientzia ahaztezina izatea espero dugu, lagun berri asko eginda eta zuen etxeetan bezala sentituta".



Hilaren 4ko topaketan parte hartu zuten zenbait emakume. MARI MAR GOMEZ



Eszenatokia aldatuta ere, ederki jardun ziren Kukaiko kideak. TXINTXARRI



Zuzeneko musika ere izan zen. TXINTXARRI



Emanaldian aritu zen dantzarietako bat. TXINTXARRI



Akrobaziak egin zituzten. TXINTXARRI



Une ikusgarrietako bat. TXINTXARRI



Herritarren gustukoak izan ohi dira kale antzerki eta dantza emanaldiak. Dozenaka bertaratu ziren aurrenekora. TXINTXARRI

KULTURA

Kale aniztasunaren lekuko izan da Kukai taldeak erakutsitako dantzaldia

Hilabete honetako zikloa ireki dute eragile horretako kideek 'Kale hizketak' antzezlanaren emanaldia eginda. Beste zenbait hitzordu iragarri ditu Lasarte-Oriako Udalak hilaren 24ra arte; ondo bidean, Okendon izango dira

KULTURA

Ikasturtearen errepaso umoretsua prestatzen hasiko dira aktoreak

Txintxarri

Urtero legez hilaren 26an ospatuko dugu Santa Ana eta San Joakin eguna. Ekimenez betetako egitaraua prestatzen ari dira Lasarte-Oriako Udala eta Ttakun Kultur elkarteak; horren barruan, ohi bezala, ikasturteak emandakoa umorez errepasatuko dute Okendo plazan antzezlanaren parodian.

Horren harira, antolatzaileek jakinarazi dute datorren asteko astelehenean ekingo dietela entseguei, hilaren 13an, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan, 18:00etan. Antzezle izan nahi dutenak elkar ezagutzeko eta parodian egin beharreko paperak banatzeko probestuko dute aurreneko saioa. Hurrengo egunetan beste bederatz

aldiz elkartuko dira ikuskizuna prestatzeko; azkeneko aldiz, hilaren 24an. 20:00etan bukatuko dituzte saio guztiak.

Tradizio handiko jarduera da Santa Ana eta San Joakin eguneko parodia. Iaz aurrera eraman zuten 75. edizioa eta, urtemuga hori oso berezia izan zenez, musikal formatua erabili zuten antzezpenerako, esketxak eta emanaldirako propio prestatutako kantuak zuzenean interpretatuta. Gutxi falta da gidoi-lariek aurtengorako prestatu dutenaz gozatzeko.

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Errenteriako Kukai konpainiaren arabera, "egungo aniztasun sozialaren eta kulturalaren ispilu" dira hirietako eta herrietako kaleak. Ideia horri irmoki helduta ondu zuten lasarteoriarrei hilaren 3an eskainitako *Kale hizketak* emankizuna. Dantza urbanoa, tradizionala eta flamenkoa uztartu zituzten orubete inguruko dantzaldian, eta hiru dantzarik parte hartu zuten. Hori ez ezik, zuzeneko musika ere jo zuten; perkusioa eta elektronikoa, esate baterako.

Urtaroa eta hilabetea horretarako aproposak direlakoan, udalak programatu dituen ekimenak kalean aurrera eramango ditu. *Kale hizketak* Okendo plazan erakutsi behar zuten baina eguraldia oso ona izan ezenez Oriarte Landaberri institutuko patioara aldatzea erabaki zuten.


Aldizkari honetako 15. orrian jaso ditugu gainerako jarduerak, Agenda atalean. Okendo enparantzan programatu dituzte guztiak baina baliteke berriz ere Oriartera joan behar izatea.








Joan den urteko parodiako esketxetako bat. TXINTXARRI



Margotu Egin zure gustuko irudia kamiseta honi.



Labirintoa Zein arrasto jarraitu behar du inurri honek bere laguntxoekin elkartzeko? Ea aurkitzen duzun.



DOMINOAN

Osa itzazu hutsuneak udako domino zati honek zentzua izan dezan.

gereziak



angurria

izozkia



flotagailua

freskagarria



haizagailua





EUSKARA


Herritarrek esan dutenetik edate

"Jaiaz harago iristea" izango da 11. Euskararen Maratoiko erabilera urtean zehar sustatzeko oinarri izan dadin. Ildo horretan Zerbitzuko kideek Esnatu! kafe-tertulia, euskaraz hausnartu e



esnatu!

kafe-tertulia
URRIAK 18
09:00-13:00
Okendo Plazan



★ **Orduetgia:**

10:00	Lehenengo txanda
11:00	Kafea + Bideoak
11:30	Bigarren txanda
12:30	Hirugarren txanda



Kafe-tertuliako taldeetako baten dinamika irudikatu dute Euskara Zerbitzuko kideek, katilu eta guz

Txintxarri

Urriaren 18an Okendo plazan egingo duten Esnatu! kafe-tertulian parte hartzen ariko balira bezala eseri dira Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuko kideak: elkarri begira, irribarretsu eta euskaratik eta euskaraz hitz egiteko gogoz. Estitxu Alkorta zinegotzia, Ana Labaka zerbitzuburua eta Aitor Unanue nahiz Axun Larburu teknikariak aritu dira hitz eta pitz, ekimen horren sorrerari eta dinamizari buruz.

11. Euskararen Maratoirako prestatutako kamisetak jantzi dituzte, eta ez alferrik: euskararen aldeko egitasmo erraldoi horren egitarauko mugarrietako bat izango da mintzodromo hori.

"Urriaren 17ko eta 18koa jai izango da, bai, baina gehiagorako ere izan behar du: hiztunak aktibatzen, egun horietan sortutako energia eta kemena bideratzeko, etorkizunean egin beharreko urratsez gogoeta egiteko eta lan-keta abiatzeko...", azaldu dute lauek. Hori horrela izanik, buruei eragin eta Esnatu! kafe-tertulia aurrera eramatea bururatu zitzaizen duela hilabete batzuk. "Modu goxo batean, kafe batekin... landu nahi ditugu 'euskararen aurkako oldarraldia' deiturikoa-ren bueltako gai guztiak. Azken finean, euskarari plaza ematea da gure asmoa, eta, ariketa horretatik aterako duguna lantzea gero". Hori esanda, argi utzi dute ez direla bilduko "negar egiteko

ateko eko

ronketako bat, euskararen
etatik ondu dute Euskara
eta herritarrei ahotsa emateko



ziti. TXINTXARRI

edota penak konpartitzeko, baizik
eta egoeraren kontzientzia har-
tzeko eta egin beharreko urratsak
mahai gainean jartzeko".

Arestian azaldutakoan sakon-
du dute Euskara Zerbitzuko ki-
deek: "Hizkuntza politketan-eta
lanean gabiltzanok egunero ja-
rraitzen dugu oldarraldiaren
gaia, baina, herritarrek nola

**"Ez gara bilduko
negar egiteko, baizik
eta kontzientzia
hartzeko eta egin
beharreko urratsez
hitz egiteko"**

ikusten dute? Nola eragiten du
horrek euren egunerokoa?.
Galdera horiek egin genizkien
gure buruei eta, horregatik, be-
raiei eman nahi diegu hitza.
Iruditzen zaigu, agian mintzatzen
hastea zertxobait kostatzen ba-
zaigu ere, denok dugula zeresana
gai horien guztien bueltan".

Mintzodromoaren dinamika

Mihia, kontzientzia eta gogoia
iratzartzeko asmoz hiru txanda-
ko ariketa izango da urriaren
18ko Esnatu! kafe-tertulia. "09:00ak
aldera hasiko gara eta parte har-
tuko duten taldeak aurkeztuko
ditugu", aurreratu dute. Horren
harira, jakinarazi dute norbana-
koek, lagun kuadrillek, eragile-
tako ordezkariak, euskaltegieta-
ko ikasleek eta establezimendue-
tako langileek parte har dezake-
tela. Aurreneko tartea 10:00etatik
11:00etara egingo dute; bigarrena,
11:30etik 12:30era; eta azkena,
12:30etik 13:30era. Kafea aurre-
neko ordutik edateko aukera
izango badute ere, katiluak es-
kuetan dituztela atsedean hartze-
ko tarte berezia 11:00etatik 11:30era
artekoa izango da.

Ordubeteko txanda horietako
bakoitzean bi gai izango dituzte
taldeek eta horietako bakoitza
ordu erdiz jorratuko dute. Hiz-
ketagai bakoitza paperezko fitxe-
tan eta Okendo plazan jarriko
duten pantailan aurkeztuko dute.
Kafe-tertulian parte hartuko du-
tenak ez ezik, ikus-entzule izango
diren herritarrak erakarri nahi
dituzte antolatzaileek, horiek ere
parte hartzeko aukera izango
baitute: "Taldeetako kideek hitz
egindakoa entzun ostean iritziak
eman ahalko dituzte, fitxak bete-
ta edo Kahoot aplikazio digitala
erabilita". Gauzak horrela, bai
taldeen bai herritarren iritziak
eta informazioa bilduko dituzte
Euskara Zerbitzuko lagunek, hu-
rrerengoa urteetako plangintza es-
trategikoaren barruan sartu eta
2027an zehar jorratu ahal izateko.

Kafea hartu, mokadutxoa jan,
hitz egin, hausnartu... Ariketa
oparoa izango da urriaren 18an
Okendo plazan egingo dutena,
09:00etatik 13:30era. Ba, horrez
guztiz gain, bertaratzen dire-
nek argazki ederrak ateratzeko
aukera izango dute Esnatu!
guneko *photocall*-ean goiz ho-
rretan zehar. Landuko dituzten
gaiekin zerikusia izango dituz-
ten leloekin kartelak egingo
dituzte eta herritarren eskura
jarriko dituzte, kameraren au-
rrean jartzeko.



Zuk ere **baduzu**
ZER ESANA!

**Kafe-Tertulian herritarrek
ere aukera izango dute parte hartzeko
Iritzia eman dezakete fitxen
bidez edo aplikazio baten bidez!**



**Etorri
photocall gunera,
argazkia atera eta
iritzia eman dezakezu!**





Donostia Arraun Lagunak, Petronor bandera altxatzen. A. ARRIZABALAGA/EUSKOTREN LIGA

ARRAUNA

Bizkaiko uretan ere, Aiora Belartietaren Donostia Arraun Lagunak garaile izan da

Enara Arruti herritarraren Nortindal Donostiarra taldea zortzigarren postuan da

Txintxarri

Euskotren Liga martxan da eta Donostia Arraun Lagunak-ek garaikurra altxatzeko bere hautagaitza erakutsi du lehen estropadetan. Madrilen zein Bizkaian lehiatutako hiru saioetan *Lugañene* ontzia nagusi izan da eta sailkapeneko buru da. Nortindal Donostiarra, aldiz, zortzigarren postuan da.

Lasarte-Oria San Pedro jaietan murgilduta egonda ere, herriko Aiora Belartietaren eta Enara Arruti arraunlariek Euskotren Ligari hasiera emango zioten ekainaren 28an. Ezohiko eremuan eta formatuan lehiatu zen lehen jardunaldia eta iazko txapelduak ez zuen huts egin; Isabel II. kanala-175. urteurrena bandera irabazi zuen.

Itsasotik kanpoko lehia izan zen lehenengoa, Euskotren Ligako ontziak Buitrago de Lozoyako (Madril) urtegiaren egin zuten arraun eta binakako erlojupekoa izan zen. Ibilbideari bi itzuli eman behar izan zioten ligako parte hartzaileek. Banaketa egiteko iazko sailkapena izan zuten kontuan.

Ondorioz, Enara Arruti herritarrak San Juan izan zuen aurrez aurre eta Donostia Arraun Lagunak-ek, aldiz, Tolosaldea AK izan zuen aurkari.

Lehen lehiaren arrosek hasieratik aurre hartu zuten eta *Bantxa*-ko kideek ezin izan zuten ezer egin. Sailkapenean zortzigarren postuan sailkatu ziren, 14.57,76 denborarekin.

Donostia Arraun Lagunak eta Tolosaldearen lehia, bestelakoa izan zen. Bi ontziak indartsu atera ziren lehiara eta estu iritsi ziren lehen eta bigarren zia-bogara. Hirugarrenean, ordea, Tolosaldeak arazoak izan zituen eta Donostiako eskifaia ongi baliatu zuen egoera buruan iritsi eta denborarik onena egiteko, 14.26,48.

Bizkaian ere garaile

Bizkaian lehiatu ziren ligako hurrengo bi probak, hilaren 4an eta 5ean; Bilboko Bandera eta Petronor Bandera.

Bizkaiko hiriburuan ibai izan zen estropada eremua. Erlojupeko moduan jokatu zen saioa eta bi txanda izan ziren; lehenean Nortindal Donostiarra eta biga-

ASTE BURUKO KIROL HITZORDUAK

FUTBOLA

OSTIRALA 10/IGANDEA 12

DONOSTI CUP

• Texas Lasarteerra CF eta Ostadar SKTko kideek Donosti Cup txapelketako bigarren fasea jokatu dute. Michelin eta Atsokabar kirol guneetan, hilaren 10ean, Champions League-ko lehiak izango dira. Egun osoa. Gipuzkoa/Michelin eta Atsokabar kirol gunean.

ARRAUNA

LARUNBATA 11

CAIXABANK BANDERA

• Euskotren Ligako laugarren saioan, X. Caixabank bandera izango da jokoan. 17.25. Castro-Urdiales, Kantabrian.

IGANDEA 12

ORIOKO BANDERA

• Euskotren Ligako ontzien Orioko 27. Emakumezkoen Estropada - Orio Kanpina XIV. Bandera lehiatuko dute. 11.25. Orion.

PILOTA

ASTEARTEA 14 ETA OSTEGUNA 16

SANTA ANA PALA TXAPELKETA

• Santa Ana Pala txapelketako final laurdenak jokatu dira; bina partida izango dira eguneko. 19.00. Loidibarren pilotalekuan.

TXIRRINDULARITZA

IGANDEA 12

• Andoingo Txirrindularitza Eskolako herritarrek Iruki saria lehiatuko dute. 16.00. Astigarragan.

HIPODROMOA

IGANDEA 12

UDAKO DENBORALDIA

• Udako denboraldiako hirugarren saioan Aterpea edo Donostia Sustapena sariak jokatu dira. 17.30. Hipodromo, Donostian.

ZALDI LASTERKETAK

Ezusteak izan dira Hipodromoan Udako bigarren jardunaldian

Txintxarri

Donostiako Hipodromoan lasterketek berriro hartu dute pista. Hiru aste etenaldiaren ostean, Udako denboraldiko bigarren jardunaldian bost lasterketak gozatu ahal izan zuten zaletuek.

Zuzengunean lehia handiak ikusi ahal izan ziren. Laugarren sarian, esate baterako, sudur batengatik eraman zuen garai-

pena *Half Moon Rising* eta Juan Cruz Diestra bikoak; *Beria*-Alejandro Gutierrez Val eta *Something*-Jose Gomez aurkariak ez zioten erraz jarri.

Eta ezustekoa eman zuten ere Mr Alan eta Pablo Labordek Fegentri Munduko txapelketa sarian. Faboritoei gailendu zitzaizen bikoak; Bugatik bihurtu buru jarri eta distantzia hartuta iritsi ziren helmugara.



Lehia biziak izan ziren. D. ARGINDAR

Hurrengo jardunaldia, hilaren 12an izango da 17:30etik aurre-

renean Donostia Arraun Lagunak izan ziren borrokan.

Bantxa lehena izan zen uretaratzen eta ez zuen erreferentziarik izan. 11.07, 52 marka eginez, zortzigarren izan zen.

Lugañene-ren kasuan, aurkari zuzena zen Tolosaldearen denbora (10.56,00) zuen gainditzeko eta ederki egin zuen. Zia-bogan denborarik onena (05.46) finkatu zuen Aiora Belartietaren ontziak eta helmugan 10.49,72 eginez irabazi zuten.

Hurrengo egunean, Zierbenan izan zuten hitzordua eta ohiko formatuan lehiatu zen bi txandetara.

Lehen txandan izan zen Enara Arrutiren Nortindal Donos-

tiarra eta horren batera, Astillero Eneryt Servicios, Zumaia Delteco eta San Juan MO Valves. *Bantxa*-ko kideak itsasoan ongi moldatu ziren eta seigarren postuan sailkatu ziren (11.01,14).

Bigarren txandan, Tolosaldea AK, Hibaika Jamones Acin, Orio Orialki eta Donostia Arraun Lagunak aritu ziren arraunean. Hasieratik *Lugañene*-k hartu zuen burua estropadan eta ongi mantendu zuen postua; 10.48,02 markarekin eskuratu zuen bandera.

Ligako eskifaiek ez dute atsendenik, hilaren 11n eta 12an, Castro-Urdiales (Kantabria) eta Orio izango dira lehiako eremuak.

HILAREN SEKO IRABAZLEAK

- Al Ukur- Valmodomus eta La Faisanera zalditegiak saria *Narcea/A. Gutierrez Val*
- Fegentri Munduko txapelketa *Mr Alan/P. Laborde*
- Belle Epoque (1916) - Kresala saria *Liberty Bleu/V. Alonso*
- Haras de Lujan - Jose Luis Cano saria *Half Moon Rising/J.C. Diestra*
- Donostia San Sebastian Turismo saria *Katalina/A. Ramirez*

ra eta besteak beste, Aterpea edo Donostia Sustapena sariak

lehiatuko dituzte zaldi, behor eta jockeyek.

B10

- Martutene KE 2-4 Texas Lasartearra CF
- Texas Lasartearra CF 1-5 FPT Academy Blau

B12

- Ostadar SKT 6-0 Igeltegi FC B
- Ostadar SKT 6-0 CF Tramontana La Mina
- Kairos Sport 6-0 Ostadar SKT

B13

- Texas Lasartearra CF 1-4 Aravaca Soccer Selec
- Texas Lasartearra CF 0-4 Factor Futbol

B14

- Zestoa FT 1-1 Ostadar SKT
- Selecao 11 2-0 Ostadar SKT

B16

- Texas Lasartearra CF 1-1 Walnut Creek Surf
- Texas Lasartearra CF 0-2 Elite Fut Academy
- CSF Team A - Texas Lasartearra CF

B18

- Texas Lasartearra CF 1-3 Independiente Madrid
- Progen FC B 3-1 Texas Lasartearra CF
- BVC Bloemendaal - Texas Lasartearra CF

G18

- Ostadar SKT 1-4 Elite Fut Academy
- Ostadar SKT 0-6 Chico United FC

* Atzo, hilaren 9a, 15:00ak arte jokaturako partidak



Zurriola ikastola-The English School partida izan zen Michelinen lehena. TXINTXARRI

FUTBOLA

Ostadar SKT eta Texas Lasartearra CFko taldeek, Donosti Cupeko azken fasea

Michelin eta Atsobakar kirol gunetan txapelketako neurketak jokatu dira

Txintxarri

Uztaila iritsi da eta horrekin batera Gipuzkoa futboleaz betetzen duen Donostia Cup txapelketa hasi zen hilaren 6an. 32 herrialdeetako 910 talde lehiatu daude hilaren 12ra arte eta horien artean, Texas Lasartearra CFko lau ekipo eta Ostadar SKTko hiru izango dira maila ezberdinetan.

Lasarte-Oriako ordezkariak multzoko faseari egin zioten aurre nazioarteko zein Estatuko

taldeen aurka denetarikoa emaitzak izan zituzten. Ikusi horiek guztiak goiko taulan.

Zazpi taldeetatik bakarrik jokatu zuen etxean; B16 mailako Texas Lasartearrak hilaren 8an, Elite Fut Academy katalana izan zuen aurkari eta 0-2 galdu zuten herritarrek.

Gaurtik (hilak 9) hilaren 12ra sailkapenaren arabera, Europa League edo Champions League lehiaketetan murgilduko dira herriko ordezkariak.

Zelaietan, jokoan

Herriko taldeez gain, Michelin eta Atsobakar kirol guneko zelaiak Donosti Cupeko egoitza dira. Hilaren 6an jokatu zituzten lehen neurketak Michelin kirol gunean; hilaren 8tik 10era, aldiz, bi instalazioetan.

Multzo ezberdinetako partidez gozatzeko aukera izan da eta gaur, hilaren 10ean, Champions Leagueko B14 mailako kanporaketak izango dira goizean; 09:00etan, 10:00etan, 11:15ean eta 12:15ean.

Jon Martin, Realarekin lanean

Realak aurreboraldia hasiera eman zion hilaren 4an, Zubietako entrenamendu instalazioetan. Lehen taldeko jokalariek zein harrobiko hamabi kide izan ziren lanean, baina Jon Martin herritarra ez zen egon horien artean. Lasarte-Oriako defentsak Espainiako selekzioarekin Munduko txapelketako prestakuntzan egoteagatik bi egun geroago egin zuen bat taldekideekin.

Liga indartsu hasi behar du Realak; abuztuaren 16an, Real Madrilaren aurka jokatu du lehen norgehiagoka. Hori prestatzeko, hilaren 18an talde txuri-urdinak denboraldiaurreko lehen partida lehiatu du Real Racing-en aurka, Zubietan. Hil amaieran eta abuztuaren hasieran, aldiz, Realak Ingalaterra, Frantzia eta Alemaniara egingo du bidaia bertako taldeekin indarrak neurtzeko.



REAL SOCIEDAD

ARETO FUTBOLA

Penaltietan erabaki da SPJ txapelketa; Benta Birras, garaile

Final estua jokatu dute irabazle zein Baltasartxoren Semeak taldeek. Goruntz FCK itxi du lehiaketako podiuma

Txintxarri

SPJ txapelketako finala jokatu zuten ekainaren 25ean Maialen Chourraut kiroldegian. Baltasartxoren Semeak FT eta Benta Birrasen arteko final estua eta zirrarragarria izan zen; penaltietan erabaki zen garailea. Hirugarren postuko lehiaren Goruntz FC gailendu zitzaion Lennon Barber Shop taldeari.

Giro ederra izan zen Maialen Chourraut kiroldegian ekainaren 25ean. SPJ txapelketako finala eta hirugarren postua izan ziren jokoan.

Arratsaldea hirugarren postuko lehiarekin hasi zen, Lennon Barber Shop eta Goruntz FC. Lehia handia egon arren, Goruntz FCK ongi baliatu zituen sortutako aukerak eta 0-3 gailendu zen.

Eta lehiaketari amaiera biritu emateko final zirrarragarria izan zen; Baltasartxoren Semeak FT eta Benta Birrasek ederki sufritu zuten.

Neurketa berdindua izan zen. Bi taldeak ederki mugitu zuten baloia erasoan eta defentsa lana ona ere egin zuten. Baina arau-



Benta Birras taldea, garailearen kopa altxatzen. SPJ TXAPELKETA

tutako denbora binako berdinetarekin amaitu ostean, penaltietara iritsi ziren.

Nekea eta urduritasunari aurre egin behar izan zioten jokalariek eta Benta Birraseko kideek

hobetu kudeatu zuen egoera bost jaurtiketa sareratzean; Baltasartxoren semeak FTK lau sartu zituen. Ondorioz, SPJ txapelketako III. edizioko garaikurra altza zuen Benta Birrasek.

KIROLDEGIA

2026-2027 ikasturteko zein epe motzeko saioen izen ematea, irekia

2026-2027 ikasturtean zehar Lasarte-Oriako Maialen Chourraut kiroldegian eskainiko diren ikastaroen izena emateko epea ireki du udalak. Inskripzioa presentzialki eta www.tramiteak.buruntzaldea.eus webgunearan bitartez egin daiteke. Azken aukera hau kiroldegiko abonatuak bakarrik dezakete.

Epe motzeko jarduerari dago kienez, aurretiko izena ematea izango dute eta udalaren Whats App kanalean aurki ditzakezue formularioak.

Kirol Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko bi modu daude: 943-37 61 82 telefono zenbakia edo kirolak@lasarte-oria.eus helbide elektronikoa.

Txintxarri

Ekain bukaera eta uztail hasieran, herriko atletek Gipuzkoako txapelketako jardunaldi ezberdinetan parte hartu zuten eta hainbat probetan podiumean izan ziren. Hilaren 4an eta 5ean, gainera, Ostadar SKTko Eider Redondo 18 urtez azpiko Espainiako txapelketan lehiatu zen heptatlo proban; seigarren amaitu zuen bere marka onduz.

Lasarte-Oriako atletek maila absolutuko Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten, ekainaren 20an eta 21ean, Arrasaten eta hilaren 1ean, disko jaurtiketako proba lehiatu zen, Donostian. Herriko kirolariak proba ezberdinetan aritu ziren eta hainbat finalera iritsi ziren. Guztira, bost urrezko domina, zilarrezko bi eta brontzezko bi jantzi zituzten.

Arrasateko jardunaldian aipatzekoak da 100 m. lasterketako nesken finalean hiru herritar izan zirela lehian: Ostadar SKTko Iraia Alkorta, Atletico San Sebastianeko Nerea Eugi eta Real Sociedadeko Alaia Romero. Lehen biak, gainera, podiumera igo ziren Alkorta hirugarren izan zen eta Eugi, aldiz, bigarren.

Bestalde, 4x100 m. errelebo proban, Iñigo Lertxundi, Erick



Gipuzkoako txapelketan domina eskuratu duten herritarretako batzuk. OSTADAR ATLETISMOA/MC OLASO

ATLETISMOA

Herriko atletek dominez bete dute poltsa Gipuzkoako txapelketan

Eider Redondo seigarren izan da 18 urtez azpiko Espainiako txapelketan

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

- Eider Redondo (Ostadar SKT): - Luzera jauzia - 1º
- Oinatz Almagro (Ostadar SKT): - Jauzi hirukoitza - 1º
- Nerea Eugi (Atletico San Sebastian): - 200 m. lasterketa - 1º
- - 100 m. lasterketa - 2º
- Mari Carmen Olaso - 5.000 m. - 1º
- Maider Rekondo (Ostadar SKT): - Pisu jaurtiketa - 1º

- Oihana Igarritz (Ostadar SKT): - Pisu jaurtiketa - 2º
- Iraia Alkorta (Ostadar SKT): - 100 m. lasterketa - 3º
- Ostadar SKT: - 4x100 m. errelebo mutiak - 3º

ESPAINIAKO TXAPELKETA

18 urtez azpikoa

- Eider Redondo (Ostadar SKT): - Heptatloia - 6º

D. Burbano, Oinatz Almagro eta Ivan Mateychuk lauokak eskuratuak brontzezko postua, 46.52.

Hilaren 1ean, Donostiako miniestadio berria estreinatzeko proba libreteko jardunaldia lehiatu zen. Horren barruan, diska jaurtiketako Gipuzkoako txapelketa izan zen jokoan. Ostadar SKTko Maider Rekondok denboraldiko marka ondu zuen 45,70 metroko jaurtiketa eginez eta urrea jantzi zuen; taldekide Oihana Igarritz, aldiz, zilarrezkoa, 34,47 metroko markarekin.

Horiez gain, Real Sociedad taldeko Hodei Garciak bere marka hobetu zuen 100 m. (11,44) eta 200 m. lasterketan (22,82) eta Bidasoa Atletiko taldeko Julen Goenagak gauza bera egin zuen 800 metrokoan, 01.56,58.

Espainiako seigarren

Eta talde-urdirin beltzeko Eider Redondok hilaren 4an eta 5ean 18 urtez azpiko Espainiako txapelketan heptatlo proba lehiatu zuen, Castello-n (Valentziako Erkidegoa). Ongi jardun zen herritarra eta guztira 4.530 puntu eskuratu zituen. Bere marka orokorra eta altuera jauzikoa zein 200 m. lasterketako ondu eta seigarren amaitu zuen lehia.

PILOTA

Intzako Maiz eta Elola kadeteek, batean kale, bestean bale Lau eta erdiko finaletan

Santa Ana Pala txapelketako final laurdenak hilaren 14an eta 16an jokatuko dira

Txintxarri

Maila ezberdinetako lau eta erdiko txapelketako finalak jokatu zituzten ekain bukaeran eta Intza Kirol elkarteko kadeteek amaiera ederra eman zioten lehiari. Hil horretako 20an, Kadete 3. Mailako lehian, Intzako Ekhi Maiz izan borrokan eta txapela jantzi zuen. Hurrengo asteburuan, taldekide Oier Elolak Kadete 2. kategoriakoa jokatu eta txapeldunorde izan zen.

Ekhi Maizek Kadete 3. Mailako finala jokatu zuen, Beotibar pilotalekuan, Tolosan. Hernaniko Madina izan zuen aurkari herritarrak eta ederki jardun behar izan zen gaztea garaipena eskuratzeko.

Neurketako lehen minutuetan lehiak berdindua zirudien, baina launako berdinketaren ostean, Madinak aurrea hartu zuen eta



Maiz, garaikurrarekin. A. OLASAGASTI

11-6 jarri zen. Maizek, ordea, ez zuen amore eman eta tontoz tanto hamaseina berdintzea lortu zuen. Inertziari jarraikiz, gainera, herritarrak markagailuari itzulia eman zion eta 17-22koarekin garaipena erdietsi zuen.

Aipatu moduan, Maiz ez zen finala jokatuko izan Intzako

kide bakarra; Oier Elola Kadete mailako 2. kategoriako txapela izan zuen jokoan ekainaren 27an pilotaleku berean; aurrez aurre LAPKEko Gurmindo izan zuen. Elolak bere onena eman zuen arren, Gurmindok eraman zuen txapela, 16-22.

Santa Ana txapelketa

Eta eskutik, palara: Santa Ana txapelketa azken fasean sartuko da hilaren 14an.

Bi multzoko bikoteek azken partidak jokatuko dituzte hurrengo egunetan. Horren ondorioz, final laurdenetarako bikoteak erabakita ez dauden arren, hilaren 21eko finalerdietako partaideak hilaren 14ko zein 16ko jardunaldietan erabakiko dira. 19:00etatik aurrera jokatuko dituzte norgehiagokak, Loizabarren pilotalekuan.

BOLEIBOLA

Gipuzkoako Kopako garaile



OSTADAR BOLEIBOLA

Era paregabean amaitu du Ostadar Boleibol sailak denboraldia, Gipuzkoako Kopa irabazi du senior A taldeak. Finalerdietan urdin-beltzen derbiari aurre egin ostean, finala jokatu zuen Aidean ZKE Aren aurka, ekainaren 13an, Bidebietako kiroldegian (Donostia). Partida serioa egin zuten Ostadar SKTko kideek. Erasoan fin egon ziren eta defentsan ere sendo aritu zen. Emaitzak islatzen duen modura, Lasarte-Oriako ordezkariak Zarautzi ez zion aukerarik eman; hiru setetan nagusi izan zen: 25-10, 25-9 eta 25-17.

Era honetara, ikasturte bereziari eman dio amaiera sailak, Euskal Ligako taldea maila nazionalean egoteko lehiatu du eta hainbat mailatan lehen postuetan izan da.

ZORION AGURRAK



Aimar
Zorionak gure umeari, infinito maite zaitugu eta ez zaitez inoiz aldatu! Ama eta aitaren partetik..



Iñigo
Ate joka daude oporrak!! Espaziotik itzultzean, kontaiguzu zer moduz ibili zaren AAre galaxietan barrena, baina ez ahaztu gure planetara bueltatzea! Ezta gaurko hamaiketako ere! kar kar kar... Lantaldearen partetik, besarkada handi bat!

SUDOKUA

	5							8
9		4	8					5
			7	2				
		6	5			4		
		8	4	6	7	2		5
	4					9		7
6		9		7	8			3
				5		6	7	2
5								9

Sudoku-online.org

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- txintxarri.eus-en erabiltzailea sortu eta txintxarri.eus/zorionagurrak helbidean sartu.

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

- Zatoz Ttakunera edo bidali WhatsApp-ez 688 68 35 10 telefonora.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu

GUARDIAKO FARMAZIAK

LASARTE-ORIA EGUNEZ	
OSTIRALA, 10	DE MIGUEL
LARUNBATA, 11	DE ORUE
IGANDEA, 12	DE ORUE
ASTELEHENA, 13	LASA
ASTEARTEA, 14	GIL
ASTEAZKENA, 15	ACHA-ORBEA
OSTEGUNA, 16	KNIESE

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: Kale Nagusia 71/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA EGUNERO

22:00etatik 09:00etara

CASTILLA-LARBURU farmazia
Urbietea kalea 7, / 94-55 29 41

URTE OSOKO GUARDIAK

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com
webgunean.eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

txintxarri
Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

Zure iragarkia jarri nahi duzu? Jar zaitez gurekin harremanetan!

Deskontu bereziak herrikoentzat!

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646824466

76. SANTA ANAKO PARODIA


Zatoz eta parte hartu!
Barruan duzun artista ateratzeko garaia da

Entseguak uztailaren 13tik:
Astelehenetik ostiralera
18:00etatik 20:00etara
Manuel Lekuona Kultur Etxean

Eman izena WhatsApp bidez
695 78 53 89 zenbakian edo agertu
kultur etxera entsegu orduetan.

HIRIBUSA

Hiribusa



Eskola egunak

Antxisu	Olatxoaldea	Institutua	Antxisu
7:40	7:47	7:50	8:06

Lanegunak

Antxisu	Olatxoaldea	Zabaleta	Atsobakar	Antxisu
8:20	8:33	8:37	8:43	8:55
9:00	9:13	9:17	9:23	9:35
10:20	10:33	10:37	10:43	10:55
11:00	11:13	11:17	11:23	11:35
11:40	11:53	11:57	12:03	12:15
12:20	12:33	12:37	12:43	12:55
13:00	13:13	13:17	13:23	13:35
13:40	13:53	13:57	14:03	14:15
14:20	14:33	14:37	14:43	14:55
15:00	15:13	15:17	15:23	15:35
15:40	15:53	15:57	16:03	16:15
16:20	16:33	16:37	16:43	16:55
17:00	17:13	17:17	17:23	17:35
18:20	18:33	18:37	18:43	18:55
19:00	19:13	19:17	19:23	19:35
19:40	19:53	19:57	20:03	20:15
20:20	20:33	20:37	20:43	20:55

Larunbatak

ESKELA

TXINTXARRI eskelak:
zabalkunde handiena Lasarte-Oria

ESKELAK JARTZEKO:
943 37 14 48 edo **646 82 44 66**
publizitatea@ttakun.eus
Osteguna 16:00ak arte jasotzen ditugu.

PREZIOAK:
Eskela mota bat TXINTXARRI Paperean + txintxarri.eus-en:
125 € (+ 21% BEZ).

IRAGARKI SAILKATUAK

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUAN HARTU

Lasarte-Oria gela bat alokatu nahi ditut uztairen 15etik abuztuaren bukaerara arte (euskalduna, Madrilan lan egiten duen pertsona). Harremanetako zenbakia, 687 35 50 95.

LANA

ESKAERA

Emakumea lan bila. Etxeko lanetarako, adineko pertsonak zaintzeko, bulegoak garbitzeko... Externa moduan. Gizarte eta Osasun Laguntza-ko Ikastaroko Profesionaltasun Agiria dut. Esperientzia. Edozein ordutegitan lan egiteko prest nago, gauzez ere bai. Harremanetako zenbakia, 676 28 22 06.

Iragarkia jartzeko

943-37 14 48
publizitatea@ttakun.eus
www.txintxarri.eus/sailkatuak

- Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- TXINTXARRI-k ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

batu txintxarri kanalera!

WHATSAPP KANALA
Lasarte-Oriaren berri, gertutasunez eta aukaraz, orain WhatsApp bidez ere bait!

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre Etxeberria,
Iñigo Gonzalez Sarobe,
Maddi Noriega Zaldúa
eta Lierni Apaolaza
Urdanpileta.

Publizitatea
Irati Zatarain Peña.

Zintilloaren egilea
Jesus Garcia Vivar.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Lierni Rekondo,
Gorka Alvarez, Aizpea
Amas, Maitane Rebe, Jexux
Artebe, Oihane Puertas
eta Pili Ormazabal.

Banatzzaileak
Nora Navarro, Aimar
Hernandez, Gari Iraola,
Axier Iraola, Eneko Sanchez
eta Udane Guisado.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea, 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua:
SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943-37 14 48 | 688 86 83 10 | txintxarri@takun.eus

OSTIRALA 10

LASARTE-ORIA

• **Antzerkia** Lasarte-Oriako Udalak antolatutako kale antzerki zikloaren barruan *Zirku kalejira* antzeulanaren emanaldia egingo du Zirkun, Zirko konpainiak. Sarrera doakoa da. Okendo plaza, 19:00etan. Eguraldi txarra egiten badu, emanaldia Oriarte Landaberri institutuko patiora eramango dute.

ASTIGARRAGA

• **Kontzertua** Zerumuga izeneko taldeak rocka eta beste estilo batzuk uztartzen ditu abestietan eta euskaraz abesten du. Bere errepertorioko onena erakutsiko du zuzeneko kontzertuan. Gobadarien parkea, 20:30ean.

LARUNBATA 11

URNIETA

• **Antzerkia** Zurriburri antzerki taldeak *Terror y miseria en el primer franquismo* antzeulanaren

emanaldia egingo du. Sarrera doakoa da. Sarobe Arte Eszeniko Gunea, 19:00etan.

ASTIGARRAGA

• **Zinema** *Los Aitas* filma emango dute. 80ko hamarkadaren amaieran, Bilboko kanpoaldeko langile auzo batean, gimnasia erritmikoko haur talde batek nazioarteko txapelketa batean parte hartzeko aukera du Berlinean. Amek ezin dutenez alabekin joan, zeregina aiten esku geratuko da, baina ez daude interesatuta, ez bidaian ezta kirol horretan ere, ia alabengan ere ez. Murgia jauregia, 22:30ean.

ASTELEHENA 13

LASARTE-ORIA

• **Entsegua** 76. Santa Anako parodia prestatzen hasiko dira aktoreak. Antolatzaileek jakinarazi dute aurreneko egunean banatuko dituztela antzeulanaren egin beharreko paperak. Halaber, saio irekia izango dela nabarmendu dute. Manuel Lekuona

Kultur Etxea, 18:00etatik 20:00etara.

ASTEARTEA 14

LASARTE-ORIA

• **Entsegua** 76. Santa Anako parodia prestatzen jarraituko dute aktoreek. Saio irekia izango dela nabarmendu dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 18:00etatik 20:00etara.

• **Zinema** LOGA gazte asanbladako kideek *Bizkarsoro* filma proiektatuko dute. Xirimiri elkarte, 20:00etan.

ASTEAZKENA 15

LASARTE-ORIA

• **Entsegua** 76. Santa Anako parodia prestatzen jarraituko dute aktoreek. Saio irekia izango dela nabarmendu dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 18:00etatik 20:00etara.

OSTEGUNA 16

LASARTE-ORIA

• **Entsegua** 76. Santa Anako parodia prestatzen jarraituko dute aktoreek. Saio irekia izango dela nabarmendu dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 18:00etatik 20:00etara.



TXINTXARRI

OSTIRALA 17

LASARTE-ORIA

• **Entsegua** 76. Santa Anako parodia prestatzen jarraituko dute aktoreek. Saio irekia izango dela nabarmendu dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 18:00etatik 20:00etara.

• **Antzerkia** Lasarte-Oriako Udalak antolatutako kale antzerki zikloaren barruan *Alonso* antzeulanaren emanaldia egingo dute. Sarrera doakoa da. Okendo plaza, 19:00etan. Eguraldi txarra egiten badu, emanaldia Oriarte Landaberri institutuko patiora eramango dute.



LARUNBATA 18

ANDOAIN

• **Kontzertua** Garxot Unsain eta Garazi Esnaola musikariek emanaldi bateratua egingo dute. Sarrera doakoa da. Otieta parkea, 18:30etik aurrera.

USURBIL

• **Ikuskizuna** Noaua! Kultur Elkarteak 30 urte bete dituela-eta, *Ikimilikiliklik Vol.2* antzeulanaren emanaldia antolatu du Usurbil Bizi herri egitasmoko kideekin lankidetzan. Edurne Azkarateren

zuzendaritzapean ariko dira Intza Alkain lasarteoriatarra, Iñaki Salvador, Oreaka Tx, Libe Kortazar eta Itziar Garaluze. Dema plaza, 22:30ean.

ASTELEHENA 20

LASARTE-ORIA

• **Entsegua** 76. Santa Anako parodia prestatzen jarraituko dute aktoreek. Saio irekia izango dela nabarmendu dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 18:00etatik 20:00etara.

ASTEARTEA 21

LASARTE-ORIA

• **Entsegua** 76. Santa Anako parodia prestatzen jarraituko dute aktoreek. Saio irekia izango dela nabarmendu dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 18:00etatik 20:00etara.

ASTEAZKENA 22

LASARTE-ORIA

• **Entsegua** 76. Santa Anako parodia prestatzen jarraituko dute aktoreek. Saio irekia izango dela nabarmendu dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 18:00etatik 20:00etara.

OSTEGUNA 23

LASARTE-ORIA

• **Entsegua** 76. Santa Anako parodia prestatzen jarraituko dute aktoreek. Saio irekia izango dela nabarmendu dute. Manuel Lekuona

LASARTE-ORIA Entsegua

76. Santa Anako parodia prestatzen hasiko dira aktoreak. Astelehenetik ostiralera entseatuko dute, hilaren 13tik 24ra. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 18:00etatik 20:00etara. Saio guztiak irekiak izango direla nabarmendu dute ekimenaren antolatzaileek.

Kultur Etxea, 18:00etatik 20:00etara.

• **Zinema** Okendo Zinema Taldeak eta Lasarte-Oriako Udalak, lankidetzan, *Tasio* filma proiektatuko dute udako zikloaren barruan. Sarrera doakoa da. Okendo plaza, 22:00etan.



OSTIRALA 24

LASARTE-ORIA

• **Entsegua** 76. Santa Anako parodia prestatzeko azken saioa egingo dute dute aktoreek. Entsegu irekia izango dela nabarmendu dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 18:00etatik 20:00etara.

• **Antzerkia** Lasarte-Oriako Udalak antolatutako kale antzerki zikloaren barruan *Eraitsi SL* antzeulanaren emanaldia egingo dute. Goitibera konpainiako aktoreek. Sarrera doakoa dela jakinarazi dute antolatzaileek. Okendo plaza, 19:00etan.



ZIRKUN ZIRKO

LASARTE-ORIA Antzerkia

Zirkun Zirko konpainiako kideek Zirku kalejira antzeulanaren emanaldia egingo dute. Sarrera doakoa izango dela eta hitzordua Okendo plazan izango dela jakinarazi dute antolatzaileek. 19:00etan hasiko dira. Eguraldi txarra egiten badu Oriarte Landaberriko patioan antzeztuko dute.

XI. EUSKARAREN MARATOIA



ABANIKOA

6 €

KAMISETAK

HELDUENTZAT

16 €

HAURRENTZAT

13 €